| 3. ERANSKINA: HEZKUNTZA SAILA | ANEXO 3: ÁREA DE EDUCACIÓN |
|---|---|

| 3.1. DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI-ARAUAK, IRAKASKUNTZA ARAUTUAREN EREMUAN IRABAZI ASMORIK GABE DIHARDUTEN IKASTETXEEK EGINDAKO JARDUERA ETA PROIEKTUETARAKO. | 3.1. BASES REGULADORAS DE LA CONCESION DE SUBVENCIONES PARA LAS ACTIVIDADES Y PROYECTOS REALIZADOS POR CENTROS DOCENTES SIN ANIMO DE LUCRO QUE ACTUAN EN EL AMBITO DE LA ENSEÑANZA REGLADA |
|---|---|
| **1. Xedea** | **1. Objeto** |
| Deialdi honen xedea da irabazi asmorik gabeko ikastetxeek egindako jarduerak eta proiektuak finantzatzeko diren dirulaguntzak emateko baldintzak erregulatzea, Arrasaten irakaskuntza arautuaren eremuan dihardutenak edo Arrasateko udalerrikoak diren ikasleak dituztenak, ikasle guztien kopuruari buruz %15etik gorako portzentajean. | Es objeto de las presentes bases la regulación de las condiciones para la concesión subvenciones destinadas a financiar las actividades y proyectos realizados por centros docentes sin animo de lucro que actúan en el ámbito de la enseñanza reglada en Arrasate o bien tengan alumnado procedente del municipio de Arrasate en un porcentaje superior al 15% respecto del cómputo total del alumnado. |
| Dirulaguntza xedea izango dute, batetik, noizean behin egindako jarduerek eta jarduera konkretuek eta, bestetik, eskola ikasturteko jarduera programek; lehen kasuan 2008an antolatutakoak izango dira eta bigarren kasuan, 2007-08 ikasturtean egindakoak. | Serán objeto de subvención tanto las actividades puntuales y concretas como programas de actividades del curso escolar, en el primer supuesto éstas se habrán tenido que organizar durante el año 2008 y en el segundo supuesto, durante el curso escolar 2007-2008. |
| Halaber, dirulaguntza xede duten jarduerek izaera hauxe izango dute: | Asimismo, las actividades objeto de subvención deberán tener la siguiente |
| 1) Ikastetxeek egindako hezkuntza, kultura eta kirol arloko jarduerak, eskolako hezkuntza proiektuak, berritzailetzat jotzen den material didaktiko ez ohikoa, bekak, bai eta ere, Udalak aurretik aztertuta, nahiz eta entitate publikoek finantzatu ez, gizartearentzat garrantzitsuak diren hezkuntza zerbitzuak. | 1) Actividades educativas, culturales y deportivas realizadas por centros docentes, proyectos educativos escolares, material didáctico no habitual que se considere innovador, becas, así como, previo análisis del Ayuntamiento, aquellos servicios educativos que aún no siendo financiados por entidades públicas se consideren socialmente relevantes. |
| 2) Eskola komunitatean euskararen erabilera sustatzeko jarduerak edo programak. | 2) Actividades o programas para fomentar la utilización del euskara en la comunidad escolar. |
| 3) Hezkuntza zabaltzeko jarduerak, hezkuntza garapen komunitarioko programak eta hezkuntza programak aisialdian, bai eta | 3) Actividades de difusión educativa, programas de desarrollo educativo comunitario y programas de educación en el |

| | |
|---|---|
| garapen iraunkorrarekin eta hezkidetzarekin lotutako ikastetxeek garatutako eskola programak ere. | tiempo libre, así como los programas escolares desarrollados por los colegios relacionados con el desarrollo sostenible y la coeducación. |
| 4) Irakaskuntzaren kalitatea sustatu eta eskola kudeaketa hobetzeko proiektuak. | 4) Proyectos para fomentar la calidad de la enseñanza y para mejorar la gestión escolar. |
| Ez dute dirulaguntza xederik izango jarduera edo kontzeptu hauek: | No serán objeto de subvención las siguientes actividades o conceptos: |
| 1) Azpiegiturako obrak, inbertsioak, ondasun higiezinak erostea eta altzariak eta ekipamendua (altzariak, elektrotresnak, argazkizkoa, informatikoa) erostea. | 1) Propuestas que consistan en la realización de obras de infraestructura, inversiones, adquisición de inmuebles y la compra de mobiliario y equipamiento (mobiliario, electrodoméstico, fotográfico, informático). |
| 2) Ikastetxeen mantentze eta funtzionamendu gastuak. | 2) Los gastos de mantenimiento y funcionamiento de los colegios. |
| 3) Jarduerak, proiektuak eta prestakuntza ikastaroak egiteko, irakasle titularren gastuak. Edozelan ere, onartuko dira diruz laguntzeko modukoak bai irakasle horien ordezkatze gastuak nahiz jarduera egiteko berariaz kontratatutako bekadunen kostuak ere, beti ere diruz lagundu moduko jardueraren kostoa %33ko mugarainokoa. | 3) Los gastos de personal del profesorado titular para realizar diferentes actividades, proyectos y cursos de formación. No obstante, se admitirán como subvencionables tanto los gastos de personal de las sustituciones de estos profesores como los costes de los becarios contratados específicamente para realizar la actividad subvencionable, hasta un límite del 33% del coste de la actividad. |
| 4) Ikastaroak, proiektuak eta jarduerak garatzeko, irakasleek egindako bidai gastuak eta dietak, baina bai sartzen dira ikastaro edo jarduera horien matrikulazio gastuak. | 4) Los gastos de viaje y dietas del profesorado realizados para desarrollar los cursos, proyectos y actividades, pero sí los gastos de matriculación de dichos cursos o actividades. |
| 5) Ikasleriak egindako irteera didaktikoen eta ohiko jardueren eratorritako garraio eta egonaldi gastuak. Edozelan ere, jarduera gauzatzeko aurreikusitako diru-sarrerak gutxituz gero, jardueraren kosto garbia % 50ko mugaraino diruz laguntzeko onar dezake Udalak. | 5) Los gastos de transporte y estancia derivados de salidas didácticas y de actividades ordinarias del alumnado. No obstante una vez descontados los ingresos previstos para su realización el Ayuntamiento podrá admitir subvencionar estos gastos hasta un límite del 50% del coste neto de la actividad. |
| 6) Ikastetxearen ohiko jarduerari dagozkion material suntsikorraren gastuak eta material didaktikoa erosteko gastuak baldin eta ez badaude egotzita proiektu jakin bati edo justifikatze dauden edo ikastetxearen hezkuntza zerbitzu iraunkorrari egokitzen zaiola jotzen bada. | 6) Gastos de material fungible correspondientes a la actividad habitual del centro al igual que gastos de adquisición de material didáctico que no estén asociados ni justificados a un proyecto específico o que se estime son parte de un servicio educativo permanente del centro. |

| | |
|---|---|
| 7) Udalaren iritziz beste laguntza programa, programazioak, edo finantzatzeko lerro batzuetan hobeto egokitzen diren dirulaguntzak. | 7) Aquellas subvenciones que en opinión del Ayuntamiento tengan mejor encaje en otros programas de ayuda, programaciones o líneas de financiación. |
| **2. Onuradunak** | **2. Personas beneficiarias** |
| Dirulaguntza eskatu dezakete irabazi asmorik gabeko ikastetxeek, Arrasaten egoitza eta jarduera eremua dituztenak, betiere haien jarduera bat badator deialdi honetako helburuarekin. | Podrán solicitar las subvenciones que se regulan por las presentes bases específicas, los centros docentes sin ánimo de lucro que cumplan los siguientes requisitos: |
| a) Ikastetxe hauek izango dira: Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapak ematen dituztenak eta etapa horietako ikasleekin dirulaguntza eskabidearen xedeko jarduerak, proiektuak eta abar garatzen dituztenak. | a) Deberán ser centros docentes que impartan las etapas de Educación Infantil, Educación Primaria y Educación Secundaria Obligatoria y desarrollen las actividades, proyectos etc. objeto de la solicitud de subvención con alumnos/as de las citadas etapas. |
| b) Ikastetxeak hezkuntza jarduera emango du Arrasateko udalerrian edo nahiz eta herritik kanpora garatu jarduera, Arrasateko derrigorrezko hezkuntzako ikasleak izan behar ditu eskola adinean (6-16 urte bitarteko ikasleak), ikasle guztien kopuruari buruz %15etik gorako portzentajean. | b) Deberá ser un centro educativo que imparta su actividad en el término municipal de Arrasate o que aunque desarrolle su actividad fuera del término municipal cuente con alumnado de Arrasate dentro de la edad escolar (entre 6-16 años) de la educación obligatoria en un porcentaje superior al 15% respecto del cómputo total del alumnado. |
| Programa honetako aplikazio eremutik kanpo geratuko dira hauek: | Quedarán excluidos del ámbito de aplicación del presente programa: |
| a) Udal titularitateko 0-3 urteko zikloko haur eskolako zerbitzuaren ikasleak eta “Haurreskolak” partzuergoko ikasleak. | a) El alumnado del servicio de escuela infantil del ciclo 0-3 años de titularidad municipal así como el alumnado del Consorcio “Haurreskolak”. |
| **3. Aurkeztu beharreko agiriak** | **3. Documentacion a presentar** |
| Dirulaguntzaren eskabide eredu ofizialarekin batera aurkeztuko dira, deialdi honetako oinarri orokorretako 7. artikuluan errekeritzen denaz gain, agiri hauek: | Al modelo oficial de solicitud de la subvención deberá acompañarse, además de la requerida en el artículo 7 de las bases generales de la presente convocatoria, la siguiente documentación: |
| - Dirulaguntza helburu duen irakaskuntza mailetan ikastetxean matrikulatutako ikasleen zerrenda, eta adieraziko da zeintzuk diren Arrasatekoak. | - Relación de alumnos matriculados en el centro escolar en los niveles de enseñanza objeto de la subvención, con indicación de aquellos que sean procedentes de Arrasate. |

| | |
|---|---|
| - Jarduera konkretuetarako eskabideetan: adierazi beharko da zenbatek parte hartuko duten, eta non eta noiz egingo dituzten. | - En las solicitudes para actividades concretas: se deberá indicar el número previsible de participantes, así como el lugar y las fechas de celebración previstas. |
| - Ikasturteko programa eta jardueretarako eskabideetan: aipatuko dira onuradunak zer baliabide eta azpiegitura dituen jarduera egiteko. | - En las solicitudes para programas y actividades del curso escolar: se deberán relacionar los medios e infraestructuras con los que cuente la persona beneficiaria para el desarrollo de la actividad. |
| **4. Izapidetzeaz arduratzen den administrazio unitatea.** | **4. Unidad administrativa encargada de la tramitación** |
| Hezkuntza administrazio unitateak izapidetuko ditu eskabideak. | Las solicitudes serán tramitadas por el unidad administrativa de Educación. |
| **5. Eskabideak baloratzeko irizpideak.** | **5. Criterios de valoracion de las solicitudes** |
| Programa honetarako diruz lagundu daitekeen kopurua kalkulatzeko, hemen zehazten diren irizpideak aplikatuko dira: | Para calcular la cantidad correspondiente subvencionable del presente programa se aplicarán los criterios que a continuación se detallan: |
| **5.1. Zenbat diren, hezkuntza etapa bakoitzaren ikasleko.** | **5.1. Cantidad por alumno de cada etapa educativa.** |
| a) Programa honetarako Udalak kontsignatu duen kopuru globala zatitzen da ikastetxeetako ikasleen kopuru osoarekin, eta horrela kalkulatzen da diruz lagundu beharreko kopurua ikasleko, oro har. | a) La cantidad global que el Ayuntamiento haya consignado para este programa se divide entre el número total de alumnos de los centros escolares, calculándose así la cantidad subvencionable por alumno en general. |
| b) Ikasleen guztizko kopurua kalkulatzeko, Arrasaten kokatuta ez dauden eta Arrasateko udalerrikoak diren ikasleak dituzten ikastetxeen ikasle guztien kopuruari buruz % 15etik gorako portzentajean, %50eko balioan kontuan hartuko dira. | b) A efectos del cálculo del número total de alumnos, los alumnos de Arrasate que no estuvieran en centros escolares ubicados en Arrasate cuyo alumnado sea un porcentaje superior al 15% procedente de Arrasate,se considerarán al 50% |
| c) Ikasle eta hezkuntza etapako dirulaguntza kalkulatzeko, biderkatuko dira aurreko paragrafoan lortutako kopurua eta portzentaje hauek, hezkuntza etapen arabera: | c) Cara al cálculo de subvención por alumno y etapa educativa, se multiplicará la cantidad obtenida en el párrafo anterior por los siguientes porcentajes según las etapas educativas: |
| - DBH -------------------------------------- 100% | - ESO -------------------------------------- 100% |
| - Lehen Hezkuntza ------------------------- 97% | - Educación Primaria ---------------------- 97% |

| | |
|---|---|
| - Haur Hezkuntza --------------------------- 94% | - Educación Infantil ------------------------ 94% |
| Eragiketa horretatik lortzen da dirulaguntza modulua ikasleko eta hezkuntza etapako, eta hori aplikatuko zaio ikasleen kopuruari ikastetxe bakoitzaren etapako, eta horrela, kalkulatuko da dirulaguntza kopuru bat (A) ikastetxe bakoitzarentzat. | A partir de dicha operación se obtiene el módulo de subvención por alumno y por etapa educativa que será aplicado al número de alumnos por etapa de cada colegio, calculándose así una cantidad de subvención (A) para cada centro docente. |
| **5.2. Ondare eta funtzionamendu irizpidea** | **5.2. Criterio patrimonial y de funcionamiento.** |
| Jarduera udal titularitateko eraikinetan garatzen duten ikastetxeei eta Udalak mantentze zerbitzua eman ez eta mantentze eta funtzionamendu helburuetarako kontusailik jartzen ez dien ikastetxeei, laguntza osagarri gehituko zaie eskola eraikin independiente bakoitzeko 5.1.b) atalean lortutako kopuruaren %1,5 igotzea, eta, hortaz, halako kasu bat izanez gero, koefiziente hau aplikatuko da, (B)=1 +(mantentzetik kanpo udal titularitateko eraikin kopurua x 1,5/100). | A los centros escolares que ejercen su actividad en edificios de titularidad municipal y a los que el Ayuntamiento no ofrece su servicio de mantenimiento, ni consigna ninguna partida para fines de mantenimiento y funcionamiento, se les modulará la ayuda asignada en el apartado 5-1 con un aumento de un 1'5% de la cantidad obtenida en el apartado 5.1.b) por cada edificio escolar independiente, aplicándose, por tanto, en cuando concurra este supuesto el siguiente coeficiente (B)=1 +(nº edificios de titularidad municipal fuera de su mantenimiento x 1'5/100). |
| **5.3. Ikastetxe bakoitzarentzat dirulaguntza kalkulatu aurreko kopurua** | **5.3. Cantidad previa de cálculo de subvención para cada centro docente** |
| Ikasleko eta etapako kopurua (A) aplikatu ondoren ikastetxearentzat ateratzen den kopurua modulatu egingo da, eta hala badagokio, gehitu egingo da, eta aplikatuko dira ikastetxe bakoitzari dagozkion indizeak, funtzionamendu eta ondare irizpideari jarraitutako indizeak, eta horrela, kalkulatuko da kopuru bat, eta horixe izango da Udalak erabiliko duen oinarria ikastetxeek aurkeztutako proiektuak edo jarduerak aukeratzeko, diruz laguntzekoak direnak. (A)x(B) | La cantidad resultante para colegio después de la aplicación de la cantidad por alumno y etapa (A) se modulará, y en su caso aumentará, aplicando los índices que siguiendo al criterio de funcionamiento y patrimonio corresponda a cada colegio, calculándose así una cantidad que será la base que utilizará el Ayuntamiento para la elección de los proyectos o actividades presentados por los colegios cara a ser subvencionados. (A)x(B) |
| **5.4. Proiektuak aukeratzeko irizpideak, haien izaeraren arabera** | **5.4. Criterios de elección de los proyectos según su naturaleza** |
| Erreferentziatzat harturik oinarri-arau espezifiko hauetako 5.3 atalean kalkulatu den ikastetxe bakoitzeko diru kopurua, diruz baloratutako dirulaguntza eskabideak aztertuko ditu Udalak eta diruz lagundu beharreko | Teniendo como referencia la cantidad económica por cada centro escolar calculada en el apartado 5.3 de las presentes bases específicas el Ayuntamiento analizará las solicitudes de subvención valoradas |

| | |
|---|---|
| proiektuak, jarduerak edo elementuak aukeratuko ditu, ikastetxe bakoitzak aurkeztutako proposamenak lehenetsi eta gero, irizpide hauek aplikatuz, atal bakoitzeko hemen jasotzen den puntuazioarekin: | económicamente y elegirá los proyectos, actividades o elementos a subvencionar, una vez priorizadas las diferentes propuestas presentadas por cada centro docente, mediante la aplicación de los siguientes criterios, con la puntuación que a continuación se recoge por cada apartado: |
| 1.- Programaren edo jardueraren oihartzuna, eta udalerria garatzen lagundu duena. Gehienez ere 20 puntu. | 1.- La repercusión del programa o actividad y la contribución al desarrollo del municipio. Hasta un máximo de 20 puntos |
| - Programaren edo jardueraren hezkuntza eta gizarte errentagarritasuna. | - Rentabilidad educativa y social del programa o de la actividad. |
| - Programaren edo jardueraren kultura errentagarritasuna. | - Rentabilidad cultural del programa o de la actividad. |
| - Jarduera edo programan parte hartu dutenen kopurua. | - Número de personas participantes en la actividad o programa. |
| 2.- Osagarritasuna, ikastetxearen beraren hezkuntza proiektu globalari buruz. Gehienez ere 20 puntu. | 2.- La complementariedad con respecto al proyecto educativo global del propio colegio. Hasta un máximo de 20 puntos |
| 3.- Euskara normaltzeko sustapena, jarduera egiten duen eskola komunitatearen eremu guztietan (fisikoak eta gizarte eragileak). Gehienez ere 15 puntu. | 3.- El fomento para la normalización del euskara en todos los ámbitos de la comunidad escolar (físicos y agentes sociales) que suponga la actividad. Hasta un máximo de 15 puntos. |
| 4.- Aurkeztu diren proiektuen berrikuntza eta kalitate pedagogiko eta teknologikoa. Gehienez ere 15 puntu. | 4.- La innovación y calidad pedagógica y tecnológica de los proyectos presentados. Hasta un máximo de 15 puntos. |
| 5.- Antolaketa, egitura eta ekonomia ahalegina proiektua edo jarduera egiteko. Gehienez ere 10 puntu. | 5.- El esfuerzo organizativo, estructural y económico que suponga el proyecto o actividad. Hasta un máximo de 10 puntos. |
| 6.- Programaren zehaztasun eta errealismo maila, edukietan nahiz helburuetan, bai eta jardueraren kalitatea, orijinaltasuna eta egokitasuna ere. Gehienez ere 10 puntu. | 6.- El nivel de concreción y realismo del programa tanto en sus contenidos y como objetivos, así como la calidad, originalidad y oportunidad de la actividad. Hasta un máximo de 10 puntos. |
| 7.- Eskatzaileari dagokionez, beste finantzabide batzuetara jotzeko, eskatzaileak egiaztatzen duen zailtasuna eta eskatu den dirulaguntzaren proportzioa, entitate eskatzailearen berezko baliabideei buruz. Gehienez ere 10 puntu. | 7.- Con respecto al solicitante, la dificultad acreditada por el solicitante para acudir a otros medios de financiación y la proporción de la subvención solicitada con respecto de los medios propios de la entidad solicitante. Hasta un máximo de 10 puntos. |

| | |
|---|---|
| Edozelan ere, programa honetan aurreikusten diren laguntzak lortzeko, gutxienez 50 puntu lortu behar dute aurkezten diren proiektuek. | En todo caso, para la obtención de las ayudas previstas en el presente programa los proyectos presentados deberán obtener una puntuación mínima de 50 puntos. |
| Aukeratutako proiektu bakoitzetik deskontatuko dira, izaeragatik arauditik kanpo jotzen diren kontzeptuez gain, finantzatzeko aurreikusten diren diru sarrerak, eta hori da dirulaguntzaren behin betiko kopurua atera aurreko kalkulu bat. | De cada proyecto elegido se descontarán, además de los conceptos que por su naturaleza se consideran fuera de la normativa, los ingresos previstos para su financiación, siendo éste un cálculo previo a la definitiva cifra de subvención. |
| **5.5. Ikastetxe bakoitzari esleitutako bukaerako dirulaguntza kopurua kalkulatzea** | **5.5. Cálculo de la cantidad final de subvención asignada a cada centro docente** |
| Ikastetxe bakoitzari emandako dirulaguntzaren bukaerako kopurua izango da formula hau aplikatzetik ateratzen dena: A x B. Ikastetxerako ateratzen den kopuru kalkulatua, ikasleko eta etapako kopurua aplikatu eta gero (A), modulatuko da ondare eta funtzionamendu irizpidearekin (B). Kopuru hori kalkulatutakoan, dirulaguntzaren bukaerako kopuruaren behin betiko asignazioa egingo da, aukeratu diren proiektuei egokituko dena. | La cantidad final de subvención concedida a cada centro docente será la que resulte de la aplicación de la siguiente fórmula: A x B. La cantidad calculada resultante para colegio después de la aplicación de la cantidad por alumno y etapa (A) se modulará con la aplicación del criterio patrimonial y de funcionamiento (B). Una vez calculada esta cifra se realizará la asignación definitiva de la cantidad final de subvención que se adecuará a los proyectos elegidos. |
| Dena den, Udalak programa honen dirulaguntzaren erabilgarritasunaren arabera jokatzeko ahalmena du, ikastetxe bakoitzak aukeratutako proiektuei emandako dirulaguntza borobiltzeko eta egokitzeko, betiere oinarri espezifiko hauetako 5.7 artikuluan ezarritako laguntzen mugak kontuan izanik. | No obstante, el Ayuntamiento se reserva la facultad de proceder, en función de las disponibilidades presupuestarias del presente programa, a la oportuna adaptación y redondeo de las ayudas asignadas a los distintos proyectos elegidos para cada Centro Educativo, siempre teniendo en cuenta el límite de ayuda establecido en el artículo 5.7 de las presentes bases específicas. |
| **5.6.Ikastetxea arrasaten egon ez baina haien ikasleen kopurua %15etik gora arrasatekoa bada, ikastetxe horien tratamendua** | **5.6. Tratamiento de los centros docentes que no estén ubicados en Arrasate cuyo alumnado sea en un porcentaje superior a un 15% procedente de Arrasate** |
| Kasu honetan aplikatuko zaio ikastetxeari, ikasleko diruz lagundutako kopuruen %100 arte, kontuan izanik nahitaezko eskola adinean eskolaturik dauden Arrasateko ikasleen kopurua bakarrik, eta modulatuko dira ondare | En este supuesto se aplicará al centro docente hasta el 100% de las cantidades subvencionadas por alumno teniéndose en cuenta únicamente el número de alumnos de Arrasate que están escolarizados dentro de la |

| | |
|---|---|
| eta funtzionamendu irizpidearekin (%50), eta berdin aukeratutako proiektuen ponderazio eta balorazio irizpidearekin (%50). | edad obligatoria escolar, modulándose con el criterio patrimonial y de funcionamiento (50%) al igual que con el criterio de ponderación y valoración de los proyectos elegidos (50%). |
| **5.7. gehienez ere diruz lagunduko den zenbatekoa** | **5.7. Importe máximo de subvención** |
| Orokortasunez, dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa ez da izango jardueraren kostu garbiaren %75 baino handiagoa. Edozelan ere, salbuespenez eta kontuan izanik planteatu den jardueraren izaera eta oihartzuna, laguntza portzentaje handiagoa baimendu ahal izango du Udalak berariaz. | Con carácter general el importe máximo de la subvención no superará el 75% del coste neto de la actividad. No obstante, con carácter excepcional y a la vista de la naturaleza y repercusión de la actividad planteada, el Ayuntamiento podrá autorizar expresamente un porcentaje de ayuda superior. |
| **6. Aurrekontua** | **6. Presupuesto** |
| Programa honen bidez deitutako dirulaguntzen zenbatekoa 200.000 €-koa da, eta finantzatuko da "1.09.00.481.422.00.00– Irakaskuntzako dirulaguntzak" kontu sailaren kontura. | El importe de las ayudas convocadas a través del presente programa asciende a la cantidad de 200.000€, y será financiado con cargo a la partida presupuestaria "1.09.00.480.422.00.00-Subvenciones Enseñanza". |
| **7. Frogatzeko epea eta erak** | **7. Plazo y formas de justificación** |
| Deialdi honetako oinarri-arau orokorretako 23. eta 24. artikuluetan arautakoaz gain, aurkeztu behar da, halaber, jarduera garatu behar dela-eta sortu den dokumentazio osoaren ale bat, eta horrekin lortu nahi ziren helburuen exekuzio mailari buruzko balorazio bat ere bai. | Además de lo regulado en los artículos 23 y 24 de las bases generales de la presente convocatoria, se deberá presentar, asimismo, un ejemplar de toda la documentación producida con motivo del desarrollo de la actividad, así como una valoración respecto del grado de ejecución de los objetivos perseguidos con la misma. |
| Oro har, jardueren justifikazioak ikasturtearekin lotuta izan behar du eta diruz lagundutako jardueren faktura originalak edo udal funtzionarioak konpulsatutako kopiak aurkeztu beharko dira, noizean behin egindako jardueren justifikazioa, berriz, dirulaguntza ematen den urte berekoa izan behar dira. | Con carácter general, la justificación de las actividades estará relacionada con el curso escolar y las actividades subvencionadas deberán ser justificadas a través de facturas originales o fotocopias compulsadas por funcionario municipal. Las actividades puntuales deberán realizarse y justificarse dentro del año en que ha sido concedida la ayuda. |
| **8. Klausula gehigarria** | **8. Clausula adicional** |
| Oinarri espezifiko hauetan jasotzen ez diren gai guztietan oinarri orokorretan ezarritakoa | En todo lo no recogido expresamente en las presentes bases específicas, se estará a lo |

| | |
|---|---|
| izango da aplikagarria. | dispuesto en las bases generales de la convocatoria. |
| Halaber, Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantzan eta 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorrean eta bat datozen gainontzeko lege arauetan ezarritakoari atxikiko zaio. | Asimismo, regirán la Ordenanza Municipal de Subvenciones y la Ley 38/2003, General de Subvenciones y demás disposiciones legales concordantes. |